

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 649/2021 Erabakia, azaroaren 2koa. Onestea Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuen zerrenda aldatzea

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 74. artikuluan dioenez, administrazio publikoek lanpostuen zerrenden bitartez edo antzeko antolaketa tresnak erabilita egituratu behar dute beren antolamendua.

Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak honela dio zioen adierazpenean: "Legeak sistemaren egituraketak oinarri duen muintzat jartzen ditu lanpostu zerrendak, administrazio karrerako funtsezko elementu, lansari sistemaren ardatzik garrantzizkoen eta, batez ere, administrazio egiturak arrazoibidetzeko eragile bilakatu. Lanpostuak eratzeko erabili behar diren funtsezko irizpideak eta prozedura bideak ezartzen ditu legeak, baina lanpostu zerrenda horiek erakundearen beharren benetako adierazpide izan behar dute beti eta horretan datza horien indarra. Ondorioz, lanpostu zerrenda horiek izaera dinamikoa dute eta horrek administrazio publikoaren helburuak betetzeak eskatzen duen etengabeko egokitze prozesuari jarraitu beharra dakar, beharrak aldatuz baitoaz".

Antolamendu egituren, eskumenen eta lanpostuei esleitutako eginkizunen berezko eboluzioak beharrezko egiten du lanpostu zerrenda era egokian moldatzea eta aldatzea eta, ondorioz, lanpostu bakoitzean jarduteko gaitasunak eta betekizunak ere bai.

Lanpostuak sortzeko ahalmena ematen duen aurrekontu gaitzeari dagokionez, kontuan hartu behar da zer xedatzen duen Lurralde Historikoaren 2021erako Aurrekontua betearazteko urtarrilaren 26ko 1/2021 Foru Arauak, langileen kudeaketari buruzko 25.3 artikuluan:

"2021eko ekitaldian, lanpostuen zerrenda aldatzeko espedienteak honako kasu hauetan besterik ez dira onartuko: ez da gastu gehikuntzarik sortu beharko, edo sortuz gero, kasuan kasuko gehikuntza bestelako lanpostuetarako kredituak murriztuz konpentsatu beharko da eta aurretik Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren aldeko txostena beharko da".

Lehenik eta behin, Ingurumen eta Hirigintza Sailean, proposatzen da Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuan Hirigintzako arkitektoaren lanpostuaren beste dotazio bat sortzea (1153.003) eta, trukean, unitate berari atxikitako Hirigintzako administrariaren lanpostua (2034.001) amortizatzen da. Proposatzen da Lurralde Informazioaren Atalean Lurralde informazio sistemako erdi-mailako teknikariaren lanpostuaren dotazio bat sortzea (1247.002) eta, trukean, Hirigintzako delineaizailearena (1315.003) amortizatzen da. Eta, azkenik, Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuan eskatzen da ingurumen kalitateko goi-mailako teknikaria izeneko lanpostu berri bat sortzea (1377.001) eta, trukean, Ur Zerbitzuko zundariaren lanpostua (1523.001) amortizatzea. Era berean, proposatzen da Ur Zerbitzuko delineaizailearen (1312.001) eta Obra hidraulikoen kontrolatzailearen (1541.003) lanpostuak berraxikitzea Obra Hidraulikoen Ataletik Ingurumen Kalitatearen Zerbitzura.

Bigarrenik, Nekazaritza Sailean, proposatzen da basozain lanpostuaren beste dotazio bat sortzea (1560.048) Mendi Zerbitzuko Ehiza eta Arrantza Atalean. Trukean, Nekazaritzako langileburuaren lanpostua (1498.001) amortizatzen da Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuko Nekazaritza Sustapenaren Atalean.

Hirugarrenik, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailean, proposatzen da Idazkaritza Teknikoko kudeaketa teknikariaren lanpostuaren dotazio bat sortzea (1499.003) Zerbitzu Orokorretako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuan eta, trukean, amortizatzea Hirigintza eta Arkitekturako aurrekontu kontrolako administrariaren lanpostua (2032.002).

Laugarrenik, adimen desgaitasuna duten pertsonen enplegu publikorako sarbidea izan dezaten sustatu eta bermatzeko, eta ezarritako kupoak lortzen aurrera egiteko, proposatzen da Zerbitzu orokorretako laguntzailearen lanpostuaren bosgarren dotazioa sortzea (1489.005), kolektibo horri soilik atxikia. Dotazio hori sortzearen trukean, Agiritegi eta Liburutegietako mandatarariaren lanpostua (1501.003) amortizatzen da.

Bosgarrenik, foru sail bakoitzari esleitutako eskumenak babestu eta garatzeko egitura organiko eta funtzionala ezartzeko helburuarekin, Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 3ko 483/2021 Erabakia onetsi zen, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuen zerrenda aldatzekoa. Erabaki horretan onetsitako aldaketan artean, Gaikuntza Nazionalako lanpostu bat sortu zen (1144.001), Lurralde Oreaken Sailaren Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuari atxikia, ezaugarri hauekin: eskala: Gaikuntza Nazionalako funtzionarioa; azpieskala: Kontuhartzailtza-diruzaintza; taldea: A1; titulazioa: 240 (Zuzenbideko lizentzia); betekizuna: 200 (B gidabaimena).

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioen funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 2.1 artikuluan xedatutakoaren arabera:

Toki korporazio guztietan gaikuntza nazionalako toki administrazioen funtzionarioentzat gordetako administrazio erantzukizuneko nahitaezko eginkizun publikoak dira: a) Idazkaritzakoak, fede publikokoak eta aginduzko lege aholkularitzakoak barne. b) Kontuhartzailtza eta diruzaintzakoak, ekonomia eta finantzen eta aurrekontuen kudeaketaren barneko kontrol eta ikuskapenekoak, eta kontabilitatekoak, diruzaintzakoak eta dirubilletakoak barne. c) Idazkaritza eta kontuhartzailtza, zeinari baitagozkio fede publikokoak eta nahitaezko lege aholkularitzakoak eta ekonomia eta finantzen eta aurrekontuen kudeaketaren barneko kontrol eta ikuskapenekoak eta kontabilitate, diruzaintza eta dirubilletakoak.

Toki Erakundeetako aholkulariaren lanposturako (1144.001) eskatutako eginkizunak bat dotoenez aipatutako artikuluen c) letran azaldutakoekin, lehenik eta behin, 33 Gaikuntza Nazionala / Idazkaritza-kontuhartzailtza eskala/azpieskala sortzen da, eta lanpostu zerrendako literalen taulan txertatzen da. Bigarrenik, Toki Erakundeetako aholkulariaren lanpostuaren (1144.001) eskala/azpieskala aldatzen da, eta 32 Gaikuntza Nazionala / Kontuhartzailtza-diruzaintza izatetik 33 Gaikuntza Nazionala / Idazkaritza-kontuhartzailtza izatera igaroko da. Bestalde, Gaikuntza Nazionalako lanpostuaren ezaugarriekiko koherentziari eusteko, titulazio betekizuna (240-Zuzenbideko lizentzia) eta gidabaimena edukitzeko betekizuna kentzen dira.

Aurreko aldaketaren ondorioz, hots, Gaikuntza Nazionala eskalako 33 Idazkaritza-kontuhartzailtza azpieskala sortzea, lanpostu zerrendako literalen taula eguneratua argitaratzea proposatzen da.

I. eranskinean jaso da amortizatutako lanpostuen zerrenda, II. eranskinean sortzea proposatzen diren lanpostuak, III. eranskinean aldatzen diren lanpostuak, IV. eranskinean berratxikitako lanpostuak eta V. eranskinean lanpostu zerrendako literalen taula eguneratua.

Alegazioen izapidea bete da eta negoziazioa gauzatu da sindikatueta ordezkariekin, honako arau hauek xedatutakoaren arabera: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, zeinak onesten baitu enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuaren legearen testu bategina, eta Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua, zeinak arautzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua.

Nahitaezko txostenak ikusita eta horietan oinarrituta, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespina ematea Arabako Foru Aldundiko karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuen zerrenda aldatzeari, ondoren xedatutakoaren arabera:

- I. eranskinean jasotzen diren lanpostuak amortizatzea.
- II. eranskinean jasotzen diren lanpostuak sortzea.
- III. eranskinean jasotzen diren lanpostuak aldatzea.
- IV. eranskinean jasotzen diren lanpostuak berratzikitzea.
- V. eranskinean jasotzen den lanpostu zerrendako literalen taula eguneratua argitaratzea.

Bigarrena. Erabaki honek Gobernu Kontseiluak onetsi ondorengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, ALHAOn argitaratzen den eguna gorabehera.

Hirugarrena. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo bestela, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman duen erakundean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1. artikuluan aurreikusitakoaren arabera eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluekin lotuta.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 2a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Funtzio Publikoko zuzendaria

ADOLFO LANDER VERA

KODEA	IZENA	MOTA	DED.ERREG.		BET. ERA	LANPOSTUAN JARDUTEKO BALDINTZAK				ORDAINSARIAK		LANTOKI HERRIA	
			BZT.	EZORD. JARD.		ATXIKIPENA	ESKALA ALZPIESKALA	IKASKETA TITULUA	HIZKUNTA ESKAKIZUNA	BERARIAZKO EZAGUPENAK	D.O MAILA		BERARIAZKO OSAGARRIA
I. ERANSKINA LANPOSTUEN ZERRENDA LANPOSTUAK KENTZEA													
Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava													
30 Saia ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENA ETA FORU ADMINISTRAZIOA													
30.3 Zuzendaritza ZERBITZU OROKORRAK													
30.3.08 Zerbitzua ZERBITZU OROKORRETAKO IDAZKARITZA TEKNIKOIA													
2032.002	HIR-ARKIT-KO AURREK-KONTR. ADMINISTRARIA.	EB	B	L	A.F.A.	C1	12	2	17	19.692,30		VITORIA-GASTEIZ	
40 Saia NEKAZARITZA													
40.1 Zuzendaritza NEKAZARITZA													
40.1.01 Zerbitzua NEKAZARITZA GARAPENA													
40.1.01.3 Atala NEKAZARITZA SUSTAPENA													
1498.001	NEKAZARITZAKO LANGILEBURUA	EB	B	L	A.F.A.	C2 AP	222	2	14	21.669,75		VITORIA-GASTEIZ	
60 Saia INGURUMENA ETA HIRIGINTZA													
60.2 Zuzendaritza INGURUMENA ETA HIRIGINTZA													
60.2.07 Zerbitzua INGURUMEN KALITATEA													
1523.001	UR ZERBITZUKO ZUNDARIA	EB	B	L	A.F.A.	C2	222	1	13	20.826,60		VITORIA-GASTEIZ	
60.2.08 Zerbitzua LURRALDE ANTOLAMENDUA ETA HIRIGINTZA													
2034.001	HIRIGINTZAKO ADMINISTRARIA	EB	B	L	A.F.A.	C1	12	2 01/12/1994	17	19.692,30		VITORIA-GASTEIZ	
60.2.08.2 Atala LURRALDE INFORMAZIOA													
1315.003	HIRIGINTZAKO DELINEATZAILA	EB	B	L	A.F.A.	C1	213	419	18	21.679,35		VITORIA-GASTEIZ	

Tabla de Literales publicada en el B.O.T.H.A nº 27, de 4 de marzo de 2019.

PAG- 1

KODEA	IZENA	MOTA	DED. ERREG.		BET. ERA.	LANPOSTUAN JARDUTEKO BALDINTZAK						ORDAINSARIAK		LANTOKI HERRIA	
			BZT.	EZORD. JARD.		ATXIKIPENA	ESKALA ALZPIESKALA	IKASKETA TITULUA	HIZKUNTZA ESKAKIZUNA	BERARIAZKO EZAGUPENAK	D.O MAILA	BERARIAZKO OSAGARRIA			
													ADM.		TALDEA
I. ERANSKINA LANPOSTUEN ZERRENDA LANPOSTUAK KENTZEA															
70 Saia KULTURA ETA KIROLA															
70.1 Zuzendaritza KULTURA															
70.1.01 Zerbitzua AGIRITEGIAK															
1501.003	AGIRITEGI ETA LIBURUTEGIETAKO MANDATARIA	EB	B		L	A.F.A.	C2	AP	14	222	2	200	13	16.576,80	VITORIA-GASTEIZ
														Lanpostu totala: 6	

Tabla de Literales publicada en el B.O.T.H.A nº 27, de 4 de marzo de 2019.

PAG- 2

KODEA	IZENA	MOTA	DED.ERREG.		BET. ERA.	LANPOSTUAN JARDUTEKO BALDINTZAK				ORDAINSARIAK		LANTOKI HERRIA	
			BZT.	EZORD. JARD.		ATXIKIPENA	ESKALA ALZPIESKALA	IKASKETA TITULUA	HIZKUNTZA ESKAKIZUNA	BERARIAZKO EZAGUPENAK	D.O MAILA		BERARIAZKO OSAGARRIA
II. ERANSKINA LANPOSTUEN ZERRENDA LANPOSTUAK SORTZEA													
Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava													
30 Saia ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENA ETA FORU ADMINISTRAZIOA													
30.3 Zuzendaritza ZERBITZU OROKORRAK													
30.3.08 Zerbitzua ZERBITZU OROKORRETAKO IDAZKARITZA TEKNIKOA													
1499.003	IDAZKARITZA TEKNIKOKO KUDEAKETA TEKNIKARIA	EB B	L	A.F.A.	A1	211	230	3	25	32.092,65		VITORIA-GASTEIZ	
40 Saia NEKAZARITZA													
40.1 Zuzendaritza NEKAZARITZA													
40.1.06 Zerbitzua MENDIAK													
40.1.06.4 Atala EHIZA ETA ARRANTZA													
1560.048	BASOZAINA	EB B	3	L	A.F.A.	C1	213	410 411	16	23.915,10		VITORIA-GASTEIZ	
60 Saia INGURUMENA ETA HIRIGINTZA													
60.2 Zuzendaritza INGURUMENA ETA HIRIGINTZA													
60.2.07 Zerbitzua INGURUMEN KALITATEA													
1377.001	INGURUMEN KALITATEKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA	EB B	L	A.F.A.	A1	211	251	3	26	37.294,35		VITORIA-GASTEIZ	
60.2.08 Zerbitzua LURRALDE ANTOLAMENDUA ETA HIRIGINTZA													
60.2.08.2 Atala LURRALDE INFORMAZIOA													
1153.003	HIRIGINTZAKO ARKITEKTOA	EB B	L	A.F.A.	A1	211	260	4	26	37.294,35		VITORIA-GASTEIZ	
1247.002	LURRALDE INFORMAZIO SUTERMAKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA	EB B	L	A.F.A.	A2	212	320	3 01/01/2021	22	32.121,75		VITORIA-GASTEIZ	

Tabla de Literales publicada en el B.O.T.H.A nº 27, de 4 de marzo de 2019.

KODEA	IZENA	MOTA	DED.ERREG.		BET. ERA.	LANPOSTUAN JARDUTEKO BALDINTZAK				ORDAINSARIAK		LANTOKI HERRIA
			BZT.	EZORD. JARD.		ESKALA ALZPIESKALA	IKASKETA TITULUA	HIZKUNTZA ESKAKIZUNA	BERARIAZKO EZAGUPENAK	D.O MAILA	BERARIAZKO OSAGARRIA	
<p align="center">II. ERANSKINA LANPOSTUEN ZERRENDA LANPOSTUAK SORTZEA</p>												
<p>70 SAILA KULTURA ETA KIROLA</p>												
<p>70.1 Zuzendaritza KULTURA</p>												
<p>70.1.01 Zerbitzua AGIRITEGIAK</p>												
1488.005	ZERBITZU OROKORRETAKO LAGUNTZAILEA	EB	B		L	A.F.A.	AP	14	1	11	11.520	VITORIA-GASTEIZ
											Lanpostu totala: 6	

Tabla de Literales publicada en el B.O.T.H.A nº 27, de 4 de marzo de 2019.

PAG- 2



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren
eta Foru Administrazioaren Saila
Departamento de Fomento del Empleo, Comercio
y Turismo y de Administración Foral

Funtzio Publikoko Zuzendaritza
Dirección de Función Pública

III. ERANSKINA

BALDINTZAK ALDATU			
		Lehen	Berria
10 Saila LURRALDE OREKA 10.2 Zuzendaritza LURRALDE OREKA 10.2.01 Zerbitzua LEGE AHOLKULARITZA			
1144.001	<i>TOKI ERAKUNDEETAKO AHOLKULARIA</i>	Azpieskala: 32 Ikasketa titulua: 240 Gidabaimena: 200	Azpieskala: 33 Ikasketa titulua: - Gidabaimena: -

32-Gaikuntza Nazionala / Kontuhartzailletza - Diruzaintza
33-Gaikuntza Nazionala / Idazkaritza - Kontuhartzailletza

240-Zuzenbideko lizentzia

200-B Gidabaimena



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren
eta Foru Administrazioaren Saila
Departamento de Fomento del Empleo, Comercio
y Turismo y de Administración Foral

Funtzio Publikoko Zuzendaritza
Dirección de Función Pública

IV. ERANSKINA

BERRATXIKIPENA	
ATXIKIPEN BERRIA	
60 SAILA INGURUMENA ETA HIRIGINTZA 60.2 Zuzendaritza INGURUMENA ETA HIRIGINTZA 60.2.07 Zerbitzua INGURUMEN KALITATEA 60.2.07.1 Atala OBRA HIDRAULIKOAK	
60.2.07 Zerbitzua INGURUMEN KALITATEA	
1312.001	UR ZERBITZUKO DELINEATZAILEA
1541.003	UR ZERBITZUKO KONTROLATZAILEA

V.ERANSKINA LANPOSTU ZERRENDAREN LITERALEN TAULA

DEDIKAZIO ERREGIMENA

MOTA

B: Bakuna
EB: Ez Bakuna

BATERAEZINTASUNA (BTZ)

B: Bateriaezina
E: Bateragarria

EZORDUETAKO JARDUNA (EZOR. JAR.)

1: Kultura Etxea
2: Museoetako mandataria
3: Baso Zaintza
4: Museoetako mandataria (Aztarnategiak)

ORDU PRESTASUNA (OR. PRES.)

1. 20 ordu
2. 40 ordu
3. 60 ordu
4. 90 ordu
5. 120 ordu
6. Orduetegi irekia

BETETZEKO ERA (BET. ERA)

L: Lehiaketa
I: Izendapen Askea

LANPOSTUAK JARDUTEKO BETEBEHARRAK

ADMINISTRAZIOA (ADM)

AFA: Arabako Foru Aldundia
EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa
GN: Gaikuntza Nazionala

ESKALA. AZPIESKALA. KLASEA

- 1: Administrazio Orokorra
- 2: Administrazio Berezia
- 3: Gaikuntza Nazionala

- 11: Administrazio Orokorra – Teknikariak
- 12: Administrazio Orokorra – Administrariak
- 13: Administrazio Orokorra – Laguntzaileak
- 14: Administrazio Orokorra – Menpekoak
- 15: Administrazio Orokorra – Kudeatzaileak

- 211: Administrazio Berezia – Teknikariak – Goi-mailako Teknikariak
- 212: Administrazio Berezia – Teknikariak – Erdi-mailako Teknikariak
- 213: Administrazio Berezia – Teknikariak – Teknikari Laguntzaileak

- 221: Administrazio Berezia – Zerbitzu Bereziak–Eginkizun Bereziak
- 222: Administrazio Berezia – Zerbitzu Bereziak – Lanbideetako Kideak

- 32: Gaikuntza Nazionala - Kontuhartzaitetza–diruzaintza
- 33: Gaikuntza Nazionala – Idazkaritza-kontuhartzaitetza

IKASKETA TITULUA

Aipatzen den titulazioetako bakoitzak dagozkion baliokidetasunak izan behar ditu, hezkuntza sistema berriaren arabera egokiturik dagozkionak, alegia

- 021 216, 241, 250 eta 253 titulazioak taldekatzea
- 213 Geografia eta Historiako Lizentzia
- 214 Albaitaritzako Lizentzia
- 215 Soin Hezkuntzako Lizentzia
- 216 Biologiako Lizentzia
- 219 Kimika Zientzietako Lizentzia
- 220 Geologiako Lizentzia
- 223 Euskal Filologiako Lizentzia
- 224 Enpresa Medikuntzako Lizentzia, Laneko medikuntzaren espezialitatea
- 225 Arte ederretako/Zaharberikuntza Lizentzia
- 230 Ekonomia eta Enpresa Zientzietako Lizentzia
- 240 Zuzenbideko Lizentzia
- 241 Ingurumen Zientzietako Lizentzia
- 242 Dokumentazioko Lizentzia
- 250 Nekazaritzako Ingeniaria (Gradu+Master)
- 251 Bide, Ubide Eta Portuetako Ingeniaria (Gradu+Master)
- 252 Industriako Ingeniaria (Gradu+Master)
- 253 Mendietako Ingeniaria (Gradu+Master)

254 Informatikako Ingeniaria (Gradu+Master)
260 Arkitektura (Arkitektoa edo Gradu+Master)
262 Arte Ederretako Lizentzia
263 Artearen Historiako Lizentzia

031 314, 315, 361 eta 362 titulazioak taldekatzea
314 Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa
315 Basogintzako Ingeniari Teknikoa
316 Industriako Ingeniari teknikoa
317 Herri Lanetako Ingeniari Teknikoa
320 Topografiako Ingeniari Teknikoa
321 Arkitekto Teknikoa
323 Meategietako Ingeniari Teknikoa
333 Euskal Filologiako Diploma
343 OLT/EUD
349 Geografia eta Historiako Diploma
350 Zaharberrikuntzako Diploma
352 Geologiako Diplomaduna
353 Bibliotekonomia eta Dokumentazioko Diploma
361 Nekazaritza eta Ingurumeneko Ingeniaritzako Gradua
362 Natura Inguruneke Ingeniaritzako Gradua
363 Kimikako Gradua

410 LH II Basogintza
411 LH II Nekazaritza
413 LH II Elektrizitatea/Elektronika
415 LH II Kimika
416 LH II Metala - Mekanika
418 LH II Arte Grafikoak
419 LH II Delineazioa
427 LH II Enologia
428 LH II Automozioa
450 Plataforma Anitzeko Aplikazioak Garatzeko goi-mailako teknikaria

BERARIAZKO FZAUPIDEAK

102 Ingelesa (Advanced edo baliokidea)

200 B Gidabaimena
201 C Gidabaimena
202 D Gidabaimena
203 C E Gidabaimena
204 D E Gidabaimena
205 B E Gidabaimena

300 Laneko Arriskuen Prebentzioko Goi-mailako ikastaroa
301 Laneko Arriskuen Prebentzioko Goi-mailako ikastaroaren 3
espezialitateetako bat (urtarilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren
37.2 artikuluan eta VI. eranskinean xedatutakoaren arabera)

302 Berdintasun gaietan espezializatutako ikastaroa, gutxienez 180 ordukoa.